



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE BERASTEGI_TEXTO REFUNDIDO
BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA_TESTU BATERATUA

BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

Dokumentua

"D. KATALOGOA"



D. DOKUMENTUA. KATALOGOA

AURKIBIDEA

1. MEMORIA	1
2. ONDASUN ETA ELEMENTU KATALOGATUEN ZERRENDA.	2
3. UDALERRIKO HIRIGINTZA ONDAREA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK ETA ONDASUNAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK	3
4. UDALERRIKO ONDARE ARKEOLOGIKOA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK ETA ONDASUNAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK	8
5. ONDASUN ETA ELEMENTU NATURALAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK	9



1. MEMORIA

1.1. KATALOGOAREN XEDEA.

Hirigintza-plangintzaren helburuetako bat da iraunkortasunaren ikuspegitik udal-garapena bermatzeko neurri egokiak definitzea, etorkizunari begira hipoteka larririk eragin gabe udalerrria gaur egungo koiunturara egokitzea ahalbidetuz.

Testuinguru horretan garrantzi berezia du, bere balio ekonomiko zuzena eta jabetza-erregimena edozein izanda ere, jarduera berriek ez hondatzea balio kolektiboa duten elementuak arbitrarioki eta justifikatu gabe.

Helburu hori kontuan hartuta, indarrean dagoen hirigintzako legeriak Katalogoak arautzen ditu, arlo horretan indarrean dagoen sektore-legerian ezarritako mekanismoen hirigintzako tresna osagarri gisa.

Alde horretatik, dokumentu honek, bere balioa eta interesa kontuan harturik, Berastegiko udalerrian babestu behar diren ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzen ditu.

Horrez gain, identifikazio hori beste bi aurreikuspen-motarekin osatzen da:

- Alde batetik, ondasun horiek, nahiz bere izaera eta egoera, nahiz duten balioaren garrantzia kontuan harturik, zein bere kategorian sartzea; izan ere, egokitzeak jo da hainbat kategoria bereiztea.
- Bestetik, ondasun horiek tratatzeko eta babesteko dagozkion neurriak zehaztea.

Era berean, dokumentu honetan azaldutako aurreikuspenak, Plan Orokor honen "B. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuaren zazpigarren tituluan (131, artikulua eta hurrengoak) ezarritakoekin osatzen dira.

1.2. DOKUMENTU ITURRIAK.

Zerrenda jarraian adierazitako dokumentuetako informazioa eta datuak kontuan hartuta osatu da:

* Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren "Euskadiko Ondare Historiko eta Arkitektonikoaren Behin-behineko inbentarioa".

* Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren "Gipuzkoako Higiezinaren Ondare Historiko eta Artistikoaren Inbentarioa".

* Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak 1997ko urriaren 14an emandako ebazpena, ustezko arkeologia-eremuak zehazten dituen.

1.3. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Adierazi den bezala, arkeologia-arrazoiak direla-eta katalogo honetan azaltzen den zerrendan ustezko arkeologia-eremuen erregimenpean dauden eremu eta elementuak babesteko araudia Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 1997ko urriaren 14an emandako ebazpenaren bidez irekitako espedientearen testuinguruak zehaztuko du.

Bestalde, erantsitako zerrendan jasotako gainerako ondasun eta elementuek proiektu honetan bertan ezarritako babes-erregimena jarraituko dute, baita gaian indarrean dagoen legeria ere, 1990eko uztailaren 7ko Euskal Kultur Ondareari buruzko Legea, alegia.



2. ONDASUN ETA ELEMENTU KATALOGATUEN ZERRENDA.

2.1. ONDARE HISTORIKO ARKITEKTONIKOA.

Monumentu Izendatutako Ondasun Higiezinak

Zerrenda honetan une honetan legez babestuta dauden monumentuak jaso dira.

- Salbarregi baserria: 2006ko martxoaren 7ko Aginduaren bidez sartu zen Kultura Ondasun gisa, monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean (EHAA 2006-04-06).
- Berastegi dorrea: 1964ko otsailaren 29ko BOEn kalifikatu eta tramitatutako kultura-ondasuna.
- Udaletxea: 2009ko urriaren 7ko Aginduaren bidez sartu zen Kultura Ondasun gisa, monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean (EHAA 2009-11-05).

Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu-multzo izendatzeko proposatutako ondasun higiezinak

Kultura-ondarea baloratzeko azterketak egin ostean, Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1990 Legeak aurreikusten dituen mekanismoen bitartez legez babesteko proposatu diren elementuak dira (monumentu kalifikatuak eta inbentariatuak).

- Leitzarango trenbidearen trazadura
- Plazaola Zentral Elektrikoa 1. Makina-etxea eta azpiegitura hidroelektrikoa. Leitzaran.
- Plazaola Zentral Elektrikoa 2. Makina-etxea eta azpiegitura hidroelektrikoa. Leitzaran.
- Ameraungo Zentral Hidroelektrikoa. Leitzaran.
- Baztarretxe baserria. Aitzunalde.
- Antsone baserria. Aitzunalde.
- Millene baserria. Izotzalde.
- Meaka baserria. Urdinarrain.
- Iruin baserria Urdinarrain.
- Millene baserria. Urdinarrain
- Sagastiberri baserria. Izotzalde.
- Ameraungo burdinola. Leitzaran.
- Plazaolako burdinola. Leitzaran.
- Calparsoro paper-fabrika (lantegia, langileen etxebizitzak eta enpresaburuaren etxea). Eldua.
- Berastegiko meatze-esparrua. Leitzaran.
- Mustarko labeak. Leitzaran.
- Urtoko zubia.
- Tourseko San Martin eliza. Elizalde.
- Jasokundeko Andre Mariaren Eliza. Eldua.
- Elduako elizak, erretore-etxeak eta serora-etxeak osatutako multzoa.
- Barrenetxe baserria, Eldua.
- Aldabane-Aldamuño baserria, Eldua.



Euskal Autonomia Erkidegoak udal-mailan babesteko proposatutako ondasun higiezinak

Kategoria honetan bildu dira eskualde edo udalerrri-mailan interes nabarmeneko kultur balioa izan arren monumentu izendatzeko behar beste baliorik ez duten elementuak. Hori dela eta, elementu horiek udal-mailako edo toki-mailako interesa duten ondasuntzat jotzen dira, eta hirigintza-dokumentuko katalogoaren bitartez soilik babestu beharko dira.

- Erretoretxea. Eguzkialde. Berastegi.
- Herriko Enparantza Etxea 3. Berastegi.
- San Lorenzoko Santutxo.
- San Sebastian basiliza. Leitzalde.
- Larre - San Lorenzo basiliza.
- San Anton basiliza. Leitzalde.
- Lizarraga baserria. Berastegi.
- Sabilla Haundina baserria. Berastegi.
- Muxika baserria. Eldua.
- Ategi baserria. Berastegi.
- Azpilleta baserria. Berastegi.
- Mintxolo baserria. Berastegi.
- Torre baserria. Berastegi.
- Bulatzi baserria. Izotzalde.
- Juangone baserria. Izotzalde.
- Gaztelune baserria. Izotzalde.
- Arbide baserria. Izotzalde.
- Elaundeazpikoa baserria. Izotzalde.
- Kanpantxo baserria. Izotzalde.
- Txuine baserria. Izotzalde.
- Obiñeta Zahar baserria. Berastegi.
- Lukasborda baserria.
- Zamargin baserria. Elduainalde.
- Aldamuño baserria. Eldua.
- Azpikoetxe baserria. Aitzunalde.
- Ameraun baserria. Ameraun.
- Plazaola baserria. Plazaola.
- Isatsako borda eta etxola. Isatsa.
- Plazako iturria.
- Oiloko Behekoa errota.
- Oiloko Goikoa errota.
- Arrosia errota.
- Plazaola zubia.
- Mustar zubia.
- Mustar zubia 2.
- Ameraun zubia.

Euskal Autonomia Erkidegoak udal-mailan zati batean babesteko proposatutako ondasun higiezinak

Eskualde edo udalerrri-mailan interes nabarmeneko kultur balioa izan arren monumentu izendatzeko behar beste baliorik ez duten elementuak dira. Hori dela eta, elementu horiek udal-mailako edo toki-mailako interesa duten ondasuntzat jotzen dira, eta hirigintza-dokumentuko katalogoaren bitartez soilik babestu beharko dira.

- Etxezar baserria (fatxada). Berastegi.
- Ermentero baserria (harmarria). Berastegi.
- Arretxe baserria (hegoaldeko fatxada eta barruko atea). Izotzalde.



Euskal Autonomia Erkidegoak udal-mailan babesteko proposatutako interes etnografikoa duten ondasunak

Interes etnografikoa duten hainbat ondasun dira, hala nola, karetegiak, gurutze-bideak, iturriak, bideak, galtzadak, kortabasoak, garbitokiak, elur-zuloak, ferratokiak, putzuak, hilobiak, zubiak, eta abar, eskualdean eta/edo udalean kultura-balio interesgarria dutenak baina, aitzitik, 'monumentu' izendatzeko behar adinako balioa ez dutenak. Udalarentzat interesa duten ondasunak dira, beraz, eta hirigintzako dokumentuko katalogoaren bidez baino ez dira babestuko.

2.2. ONDARE ARKEOLOGIKOA

Zona arkeologikoak, monumentu-multzo izendatu direnak

Honako hauek dira Kultura Ondasun Kalifikatu izendatutako elementuak:

- Belabietako estazio megalitikoak.
- Onyi-Mandoeigiko estazio megalitikoak, eta, honen barruan, Deskargako harrespila.

Bai Belabietako estazio megalitikoan bai Onyi-Mandoeigikoan, Berastegiko udalerriko lur-sail zatiak daude, eta aipatutako estazio megalitikoaren babes-erregimenak eragiten die, 3. babes-eremuari dagokionez.

Usteko arkeologia-eremuak.

1997ko azaroaren 18ko 221 zk. duen EHAAren argitaratutako 1997/10/14 ebazpenaren bidez izendatu ziren 'Usteko Arkeologia-eremuak'.

- San Martin Gotzaina eliza (B)
- Berastegiko Dorretxea edo Jauregia (B)
- Oloki baserria (A)
- Arriaga baserria (A)
- Etsoinerdi baserria (A)
- Etsoin baserria (A)
- Meaka baserria (A)
- Gaztelune baserria edo Dendategi (A)
- Sagastiberri baserria (A)
- Arretxe baserria (A)
- Arrate Txiki errota (D)
- Arrate errota (aurriak) (D)
- Elaunde Azpi baserria (A)
- Barrenetxe baserria (A)
- Etxenagusi baserria (A)
- Oiloko errota (D)
- San Sebastian basiliza (B)
- San Anton Abad edo San Anton Zar basiliza (ez da egiturarik ikusten) (E)
- Idiazabal baserria (A)
- Buztiñene baserria (A)
- Dorre Luze etxea (A)
- Obiñeta Zar baserria (A)
- Santa Maria Magdalena ospitalea / Sabilla Aundi baserria (A)
- Lizarraga baserria (A)



- Arrosi I errota (D)
- Arrosi II errota (aurriak) (D)
- Arrosi III errota (aurriak) (D)
- Arrosi IV errota (aurriak) (D)
- San Lorenzo basiliza (A)
- Plazaola burdinola (aiurriak) (D)
- Ameraungo burdinola (D)
- Mustar burdinola (ez da egiturarik ikusten) (E)
- Santa Maria eliza (A)
- Garaikoetxe baserria (A)
- Aldabane edo Aldabamuño baserria (A)
- Urzellane baserria (A)
- Beibatariko tumulua (C)

Berastegiko ustezko arkeologia-eremuen mugaketa sistematizatzeko ahaleginean, babes-eremuen honako tipologiak finkatu dira:

A. gakoa: Eraikinaren horma barruko eremua.

B gakoa: Eraikinaren horma-barruko eremua + horren inguruan, kanpoaldeko ertzetatik neurtuta, 15 metroko zerrenda.

C gakoa: elementuak okupatzen duen eremua + horren inguruan, kanpoaldeko ertzetatik neurtuta, 5 metroko zerrenda.

D gakoa: Eraikinak eta lotzen zaizkion instalazioek okupatzen duten eremua.

E gakoa: Planoan zehazten den eremua.

Beste elementu arkeologiko batzuk

- Abadegurutzeko harrespila: harrespila desagertutak jo zen Deskargako suebakia eraiki ondoren. Gaur egun, Mandoegiko parke eolikorako prospekzio-lanak egin direnean, desagertutako harrespiletako bat eta beste baten lekukotza aurkitu dira.
- Gorosmediko trikuharria. A-15 autobioiko lanak egin zirenean 4 m eskonbro geldoaren pean desagertutak eman zen, baina, seguru aski, bere horretan egongo da zaborteziaren azpian.

2.3. ELEMENTU NATURALAK.

Balio kulturala duten ondasunak eta katalogoa bera modu zabal eta irekian aintzat hartzeko testuinguruan, orain arte azaldu den zerrenda ondasun eta elementu naturalen zerrendarekin osa daiteke, izan ere tratatzeko eta begiratzeko erregimen bereziaren xede dira beren balioa kontuan hartuta. Zerrenda horretan honakoak sar litezke:

Babes bereziko landa-eremu orokorrak

Jarraian adierazten dena da zerrenda zehatza:

- Leitzarain Ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekua; Berastegiko udalerrian barrena pasatzen den Leitzarain ibaiaren zatiak eta bere ibaiadarrik garrantzitsuenek osatzen dute Leitzarain ibaia GKL (ES2120013).



- Leitzarango Biotopo Babestua, irailaren 29ko 416/1995 Dekretu bidez izendatu zena.
- Araxes, Jazkugañe (Arterreka) eta Basabe harana; Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan interes naturalistikoa duten lekuen zerrendan dago.
- "Leitzaran ibaia, ibaiertza eta basoak" eta "Araxes, Jazkugañe eta Basabe harana", EAEko Espazio Natural Garrantzitsuen Katalogo Irekian daude.
- EAEko Korridore Ekologikoen Sareko hainbat elementu, 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/CEE Zuzentarauaren 10. artikuluan ezarritako jarraibideen arabera.

Eremu horiek Plan honetako "II.1. Lurraldearen Antolamenduaren Egitura Organikoa. Lurzoru Urbanizaezinaren kalifikazioa" planoan identifikatu eta jaso dira.

Balio naturala duten beste espazio eta elementu batzuk

Lehen aipatu ez diren beste ondasun eta elementu batzuek osatzen dute zerrenda hau, eta Plan Orokorrak, bere balioa eta interesa kontuan hartuta, babesteko proposatzen ditu, bai bere ekimenez, bai gainetik dauden lege-xedapenetako aginduak betez.

Babestea proposatzen diren udalerriko ibai-ibilguez, arboladiak, faunako eta florako elementuek, eta abarrek osatzen dute zerrenda.

Espazio eta elementu horietako asko Plan honetako "IV. Hirigintza Antolamenduari Gainjarritako Baldintzatzaileak" planoan identifikatu eta jaso dira.

3. UDALERRIKO HIRIGINTZA ONDAREA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK ETA ONDASUNAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK

Monumentu Izendatutako Ondasun Higiezinak

Monumentu izendatua modalitatean sartutako ondasun eta elementuen tratamendu- eta babes-erregimena, alde batetik, kultura-ondarea arautzen duten lege-xedapen orokorretan eta, bestetik, horietako bakoitzari dagozkion berariazko xedapenetan ezarritakoa da. Azken xedapen horiek, zehazki, honakoak dira:

- Salbarregi baserriari dagokionez, baserria monumentu historiko-artistiko izendatu zuen 2006ko apirilaren 6ko Dekretuan xedatutakoari jarraituko zaio. "Zaharberritze zientifiko" deritzon eraikuntzako esku-hartze motaren mendekotzat hartuko da, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan harentzat ezarritako definizioaren eta arauketaren arabera.
- Berastegi Dorreari dagokionez, monumentu historiko-artistiko izendatu zuen 1964ko otsailaren 29ko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio. "Zaharberritze zientifiko" deritzon eraikuntzako esku-hartze motaren mendekotzat hartuko da, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan harentzat ezarritako definizioaren eta arauketaren arabera.
- Udaletxeari dagokionez, monumentu historiko-artistiko izendatu zuen 2009ko urriaren 7ko Aginduan xedatutakoari jarraituko zaio. "Zaharberritze zientifiko" deritzon eraikuntzako esku-hartze motaren mendekotzat hartuko da, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan harentzat ezarritako definizioaren eta arauketaren arabera.



Horrez gain, oro har, esparru eta eraikuntza horietan planteatzen diren jarduerak euskal kultura-ondarea begiratzeko gaitan eskumena duen administrazioaren txostenaren mende jarri beharko dira adierazitako lege-xedapenetan aurreikusten diren kasu eta aukera guztietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko monumentu edo monumentu-multzo izendatzeko proposatutako ondasun higiezinak

Ondasun eta elementu hauek begiratzeko eta tratatzeko erregimena, besteak beste, hiru irizpide-mota ezberdin eta osagarriekin lotuta ulertu behar da

Alde batetik, dagozkien obrak eta jarduerak gauzatzearen ondorioetarako, ondasun eta elementu horiek "handitzerik gabeko eraikuntzako esku-hartzeak" deritzenen erregimenaren mendekotzat hartu beharko dira, eta, horien barruan, "zaharberitze zientifikoaren" edo "zaharberitze kontserbatzailearen" bitartez eraikitakoa zorrozki gauzatzeko esku-hartzeen mendekotzat, hori guztia nahiz ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan, nahiz hori ordezkatzeko duen xedapenean ezarritakoaren arabera.

Bestetik, ondasun eta elementu horietan gauzatzeko planteatzen diren obrak eta jarduerak kultura-ondarea begiratzeko gaitan eskumena duen administrazioaren nahitaezko txostenaren mende jarri beharko dira.

Azkenik, Plan Orokor honetan zein berau garatzeko sustatuko den plangintzan ondasun eta elementu horiek bere baitan hartuko dituzten lursailen tipologietarako edo zona xehaturako orokorrean ezarritako eraikuntzako eta erabilerako erregimena birdoituztat hartuko da, hain zuzen ere, ondasun eta elementu horien berezko balioak behar bezala eta arrazoituta begiratzeko beharrezko neurrian eta irizpidearekin.

Birdoikuntza horrek, beste hainbat alderdiren artean, lursailean baimendutako eraikigarritasuna eta baimendutako eraikuntzen forma (lerrokadurak, altuera eta solairu-kopurua) arautzen dituzten parametroetan izango du eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoak udal-mailan babesteko proposatutako ondasun higiezinak, zati batean babesteko proposatutako ondasun higiezinak eta babesteko proposatutako interes etnografikoko ondasunak

Ondasun eta elementu hauek tratatzeko eta begiratzeko erregimena beren bolumetria eta kanpoko irudia eta oinarritzko parametro tipologikoak eta egiturazkoak errespetatzea dakarren neurri-multzo bati lotuta ulertu behar da.

Horrexegatik, hain zuzen, besteak beste lau irizpide-mota ezberdin eta osagarri erantzuten die horien zehaztapenak.

Lehenik eta behin, bidezkoa da ondasun eta elementu horiek babesteko eta kontserbatzeko plan berezi bat formulatzea. Honako helburu hauek izango ditu, besteak beste:

ondasun eta elementu horien berriazko balioak eta babestu beharreko elementu eta/edo zati zehatzak identifikatzea, kasu bakoitzean berriazko babes-erregimena zehaztea.

Bigarrenik, plan berezi hori sustatzen ez den artean, dagozkien obrak eta jarduerak gauzatzearen ondorioetarako, eraikitakoa zorrozki gauzatzeko "finkatzeko esku-hartzeak" deritzenen erregimenaren mendekotzat hartu behar dira ondasun edo elementu horiek. "Berriztatzeko esku-hartzea" deritzena bakar-bakarrik onartuko da ondasun higiezinaren ondare-balio guztien kontserbazioa ziurtatzen denean. Hori guztia ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan nahiz hori ordezkatzeko duen xedapenean ezarritakoaren arabera.



Hirugarrenik, ondasun eta elementu horietan gauzatzeko planteatzen diren obrak eta jarduerak kultura-ondarea begiratzeko gaitan eskumena duen administrazioaren nahitaezko txostenaren mende jarri beharko dira.

Laugarrenik, Plan Orokor honetan zein berau garatzeko sustatuko den plangintzan ondasun eta elementu horiek bere baitan hartuko dituzten lursailen tipologietarako edo zona xehaturako orokorrean ezarritako eraikuntzako eta erabilerako erregimena birdoituztat hartuko da, hain zuzen ere, ondasun eta elementu horien berezko balioak behar bezala eta arrazoituta begiratzeko beharrezko neurrian eta irizpidearekin. Birdoikuntza horrek, beste hainbat alderdiren artean, lursailen baimendutako eraikigarritasuna eta baimendutako eraikuntzen forma (lerrokadurak, altuera eta solairu-kopurua) arautzen dituzten parametroetan izango du eragina.

4. UDALERRIKO ONDARE ARKEOLOGIKOA OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK ETA ONDASUNAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK

Zona arkeologikoak, monumentu-multzo izendatu direnak

Belabietako estazio megalitikoari eta Onyi-Mandoegiko estazio megalitikoari, eta honen barruan Deskargako harrespilari, dagozkie. Eremu hauek tratatzeko eta begiratzeko erregimena 1990eko Kultur Ondareari buruzko Legea garatzean sustatutako 2003ko ekainaren 24ko 137/2003 Dekretuan xedatutakoa da.

Ustezko arkeologia-eremuak

Zona hauek tratatzeko eta begiratzeko erregimena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 1997ko irailaren 11ko Ebazpenean eta adierazitako 1990eko Euskal Kultur Ondareari buruzko Legean ezarritakoa da.

Eremu hauetako edozeinetan egingo den edozein lanen berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Zuzendaritzari dagokion udal-baimena eskuratu aurretik honek erabaki dezan proiektu arkeologikoa aurkeztea beharrezkoa den.

Beste elementu arkeologiko batzuk

Eremu hauetako edozeinetan egingo den edozein lanen berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Zuzendaritzari dagokion udal-baimena eskuratu aurretik honek erabaki dezan proiektu arkeologikoa aurkeztea beharrezkoa den.

5. ONDASUN ETA ELEMENTU NATURALAK BABESTEKO ETA TRATATZEKO PROPOSAMENAK

Ondasun eta elementu hauek tratatu eta begiratzeko erregimena kasu bakoitzean Plan Orokor honetan planteatutakoa da, eta, zehazki, "B. Hirigintza Arau Orokorrak" dokumentuan, hain zuzen ere.

Zenbaitetan erregimen hori Plan Orokor honek zuzenean proposatutakoa da.

Beste batzuetan mailaz goragoko xedapenetan du jatorria, eta Plan Orokor honek bere egiten ditu haien aurreikuspenak. Hala gertatzen da, esate baterako, espazio natural babestu,



PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE BERASTEGI_TEXTO REFUNDIDO
BERASTEGIKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA_TESTU BATERATUA

garrantzi komunitarioko leku (GKL) eta abar, kalifikatutako eta/edo izendatutako esparruen kasuan.

Donostia, 2012ko urria

BUPetako Ingeniaria:

Arkitektoak:

Abokatua:

A. Jaime

M. Muñagorri

A. Urteaga

I.Amenabar